

**ADMINISTRAZIOKO BALDINTZA TEKNIKO
BEREZIAK, GASTEIZKO AIREPORTUKO BIDAIA-RIEN
PROFILAK ETA PROMOZIO- ETA KONEKTIBITATE-
EKINTZEK PORTUKO JARDUERAN ETA TOKI-
EKONOMIAN DUTEN INPAKTUA AZTERTZEKO
ALDIZKAKO AZTERLANA EGITEKO
KONTRATAZIORAKO PROZEDURA IREKIRAKO**



AURKIBIDEA

1. Testuingurua eta esparru estrategikoa
2. Kontratuaren xedea
3. Baldintza teknikoak: Metodologia eta datuak biltzea
 - 3.1. Metodologia
 - 3.2. Datuak biltzea eta estaldura
4. Adierazgarritasuna eta bidaiarien profila
5. Lanaren plan integrala eta inpaktu ekonomikoaren txostena
 - 5.1. Lanaren plan integrala
 - 5.2. Inpaktu ekonomikoaren txostena
6. Giza baliabideak
7. Esperientzia aireportuetan
8. Araudia betetzea
9. Balorazioaren laburpena

01. Testuingurua eta esparru estrategikoa

Gasteizko Aireportuaren pasaje-proiektuan 2014tik aurrera aireportu-azpiegitura aktibatzen eta sendotzen ari dira. Helburua aireportu-sistemaren barnean konektibitatea eta posizionamendua hobetzea da.

Operazio erregularren konpainia batekin lehen promozio-kontratua finkatu eta gero, ikusi zen beharrezkoa zela sakontasunez ezagutzea zein zen Gasteizko Aireportuaren erabiltzaileen profila. Izan ere, elementu gakoa da aireportu-jardueraren plangintza, kudeaketa eta garapena optimizatzeko erabaki estrategikoak hartzeko.

Ezagutza hori ezinbestekoa da baita ere egindako promozio- eta konektibitate-ekintzen inpaktua ebaluatzeko, ez soilik trafikoa gehitzeari eta aireportuaren posizionamendua hobetzeari dagokienez, baizik eta toki-ekonomiari egiten dion ekarpenarengatik ere bai bisitariak erakarriz, enpresa-jarduera sustatuz eta lurraldean balioa sortuz.

Horregatik, noizbehinka inkestak egin zaizkie aireportuko bidaiariei, batez ere, AENAK azterlan ofizialik egin ez duen aldietan. Ekimen horiek une espezifikotarako eta lagin doituekin diseinatu ziren, betiere, aireportuaren jardunarekin eta jarduera-bolumenarekin koherentzia mantenduta.

2. Kontratuaren xedea



Kontratu honen xedea da aldizka egingo den azterlan bat egitea. Horren bitartez, sakontasunez jakin nahi da nolakoa den Gasteizko Aireportuko bidaiarien profila eta promozio- eta konektibitate-ekintzek sortzen duten inpaktua bai aireportuaren jardueran, baita toki-ekonomian ere.

Bereziki, kontratuaren xedea hau da:

- Gasteizko Aireportuan jatorria eta/edo helmuga duten hegaldien erabiltzaileak ezagutzea.
- Erabiltzaileen jokaera eta mugikortasuna analizatzea.
- Hauen inguruko informazioa eskuratzea:
 - o Profil soziodemografikoa.
 - o Bidaiaren ezaugarriak.
 - o Bidaia-mota eta ostatu-gauen sorrera.
 - o Bidaiariek egindako gastua.

Horretarako, aireportuko bidaiariei inkestak egin beharko zaizkie aurrez aurre. Horiei esker, informazio fidagarria eta kontrastatua eskuratu beharko da, ondoren analitzatzeko eta ebaluatzeko zer nolako inpaktua sortzen den aireportuan eta inguru sozioekonomikoan.

3. Baldintza teknikoak: Metodologia eta datuak biltzea

3.1. Metodologia

Gasteizko Aireportuko kasuistika operatiboa eta tamaina direla-eta, beharrezkoa da metodologia bidaiariei aurrez aurre egingo zaizkien inkestetan oinarritzea. Horrela, bermatuko da bildutako informazioa kalitatezkoa eta sakona dela, baita ere informazio horren ondorengo estatistika-tratamendua.

Inkestak egiten direnean, gutxienez, baldintza tekniko hauek bete beharko dira:

- Enpresa adjudikaziodunak galdetegia sortzea eta aurretiaz VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietateak onartzea.
- Inkestak gutxienez honako hiru hizkuntzetan egin eta itzuli beharko dira: Gaztelania, euskara eta ingelesa.
- Informazioa tableta elektronikoetan jasoko da.
- ISO 20252 araua betetzea merkatuak, gizartea eta iritziak ikertzeari buruzkoa.
- 2016/679 EB Araudia betetzea, Datuak Babesteko Araudi Orokorra (DBAO).



- Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikatzekoak diren bat datozen xedapenak betetzea.

3.2. Datuak biltzea eta estaldura

Landa-lana hilean behin egingo da, eta gutxi gorabehera hilabete bakoitzean bi astetan.

Datuak biltzeko egutegi zehatza beti egokitu beharko da AENAREN datuak biltzeko agendara. Modu horretan, AENA aldi jakin batean inkestak egiten ari bada, ez da aldi berean jardungo. Horren xedea da terminalean egoteko denborak orekatzea eta bermatzea aireportu-jarduera ohikoa ez dela oztopatzen.

Egokitzapen hori egiteko beharrezkoa izango da landa-lana modu malguan planifikatzea eta etengabe doitu beharko da aireportuaren jardunera. Aireportu-jardunean aldaketak gertatzen badira, enpresa adjudikaziodunak datuak jasotzeko jarduera aldatu beharko du, besteak beste, honakoak aintzat hartuta:

- Aireportuan urtarotetan gertatzen diren ohiko aldaketak.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean sortu daitezkeen aldaketa puntualak.

Era berean, ezinbesteko elementua izango da lagin-akatsa kontrolatzea, horrela, bermatzeko azterlanaren emaitzak kalitatezkoak eta fidagarriak direla.

2025-2026 aldirako aireportuko ordutegiak atxiki dira plegu honetako eranskinean eta erreferentziazat hartuko dira landa-lanaren hasierako plangintza egiteko.

4. Adierazgarritasuna eta bidaiarien profila

Gasteizko Aireportuko egungo jarduera kontuan hartuta, enpresa adjudikaziodunak **bermatu beharko du hegaldi bakoitzeko laginketa nahikoa izango dela**; hau da, **emaitzak erabiltzaile guztien adierazgarriak izan beharko dira estatistikoki**.

Halaber, **azterlanaren errendimenduaren adierazle nagusia (KPI) gastua izango da**. Horrenbestez, eskuratutako datuek parametro horrekin lotuta duten **fidagarritasunak**,



koherentziak eta sendotasun metodologikoak lehentasuna izango dute, bai datuak jasotzeko fasean, bai informazioa tratatzen denean ere.

Azterlan honen ondorioetarako, **neurtuko diren bidaiarien tipologiak bereziak eta bi hauek izango dira: *inbound* bidaiaria (sartzen den bidaiaria) eta *outbound* bidaiaria (irteten den bidaiaria)**. Beharrezkoa izango da bi profilak bereiztea, jokaera eta ondorio ekonomiko ezberdinak baitituzte.

Inbound bidaiariak dira beste jatorri batetik datorren hegaldi batean aireportura iristen diren guztiak, beren nazionalitatea edo bizilekua gorabehera, eta desplazamenduaren azken helmuga aireportuko eragin-eremua dutenak. Profil hori da **inpaktu ekonomikoaren analisiaren xede den bidaiari nagusia**, helmuga-lurraldean gastua sortzen baitu.

Bere aldetik, **outbound bidaiariak (irteten direnak)** izango dira desplazamendua aireportutik beste helmuga baterantz hasten duten guztiak. Kasu horretan, eta kontuan hartuta bidaiari horietako asko lurraldetik kanpokoak direla eta Gasteizko Aireportua abiapuntu gisa erabiltzen dutela, analisisan **informazioa jaso beharko da adierazten duena zein gastu egin duten aireportura iristearen ondorioz**.

Tipologia bien ezberdintasunei erreparatuz, enpresa adjudikaziodunak **bi inkesta-mota bereizi erabili beharko ditu eta espezifikoki doituta egon beharko dira inbound eta outbound bidaiarien profilera**. Gainera, une oro bermatuko dira koherentzia metodologikoa eta eskuratutako datuen kalitatea.

Pisu erlatiboari eta tipologia bakoitzeko inkesta-kopuruari dagokienez, kantitate bat ala bestea egitea **inkesta-lanaren garapenaren eta identifikatutako informazio-beharren** arabera izango da, eta **beti adostuko da enpresa adjudikaziodunaren eta VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietatearen artean**.

5. Lanaren plan integrala eta inpaktu ekonomikoaren txostena

5.1. Lanaren plan integrala



Gasteizko Aireportuko kasuistika espezifikoa kontuan hartuta (jarduera ez da jarraitua eta aldaketa operatiboak, urtarokoak eta puntualak gertatzen dira), beharrezkoa da enpresa adjudikaziodunek egokitzeko eta malgutasunez jokatzeko gaitasun handia izatea. Horregatik, landa-lana bereziki malgua den moduan kudeatu beharko da eta inkestak dinamikoki planifikatuko dira, posible izan dadin aireportuko benetako baldintzetara egokitzea.

Gauzak horrela, bereziki baloratuko da proiektua, ibilbidea, helburuak eta aireportuaren berezitasun operatiboak orokorrean ulertzea. Hala, kontratua zuzen betetzeko ezinbesteko elementuak izango dira plangintza, aurrea hartzeko gaitasuna eta malgutasuna.

Gaitasun horiek egiaztatze aldera, enpresa lizitatzailleak **lanaren plan integral bat** aurkeztu beharko du. **Nahitaez aurkeztu beharko da eta kontrataziorako ezinbesteko baldintza izango da.** Horren bitartez, argi eta garbi eta egituratuta frogatuko da zein den antolamendu- eta jardun-ikuspegia. Planak, gutxienez, honako elementu hauek izango ditu:

- VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietatearekin **koordinatzeko aldizkako bilerak egitea**, zehazki, proiektuaren jarraipena egiteko, lortutakoak balioesteko eta landa-lanaren plangintza doitzeko.
- Landa-lana egingo duten **langileak prestatzeko plana**. Bertan jasoko dira informazioa jasotzeko edukiak, metodologia eta homogeneizazio-irizpideak.
- **Landa-lana hilean behin egitea**. Bertan zehaztuko da plangintza operatiboa, esleitutako baliabideak eta aireportuko jardueraren aldaketetara egokitzeko mekanismoak.
- Jasotako **datuak prozesatzea, araztea eta analizatzea**, aurretik definituko diren estatistika- eta kalitate-irizpideekin bat etorritik.
- **Aldizkako txostenak sortzea eta hiru hilean behin entregatzea**. Txosten horietan jaso beharko da emaitzen ustiapen estatistikoa eta **formatu ikusgarri eta ulergarrietan aurkeztuko da** (taulak, grafikoak eta adierazle-koadroak), eta emaitza nagusien interpretazio-analisia egingo da.

Enpresa lizitatzailleak aurkeztutako lanerako plan integralaren egokitasuna eta kalitatea baloratzeko gehieneko puntuazioa 16 puntukoa izango da, ondoren xehatuko diren lau parametroen betetze-mailaren arabera.

Parametro bakoitza 0-4 puntu arteko eskalan baloratuko da, non: 0 ez da nahikoa, 1 nahikoa da, 2 egokia da, 3 ona da eta 4 oso ona da. .

1. **Metodologia eta landa-lanaren kudeaketa**

Analizatzen da ea proposatutako metodologia egokia den aurrez aurreko inkestak egiteko, landa-lana modu malguan kudeatzen ote den, eta inkestatzaileen prestakuntza eta kalitatea kontrolatzeko mekanismoak ere bai.

2. **Datuak analizatzeko eta txostenak idazteko sistema**

Datuak tratatzeko, analizatzeko eta estatistikoki ustiatzeko prozedurak baloratzen dira, baita ere txostenak kalitatezkoak, argiak eta erabilgarriak diren, formatu bisualak (grafikoak, taulak, adierazleak...) eta entregatzeko agiriaren maiztasuna.

3. **VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietatearekin koordinazioa eta komunikazioa**

Koordinazioko, jarraipeneko eta erakunde sustatzailearekin komunikatzeko proposamena ebaluatzen du, barne hartuta bileren maiztasuna, baliozkotze-mekanismoak eta eskakizun espezifikoetara egokitzeko gaitasuna.

Inkesta intentsiboak: Informazio espezifikoa jasotzea

Horretaz gain, VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietateak enpresa adjudikaziodunarekin adostu ahal izango du **inkesta intentsiboak egiteko aldiak** egotea gai jakin bati buruzko datuak jasotzeko, edo analisisan behar puntualak sortzen baldin badira. Jarduketa horiek **ez dira sartuta egongo kontratu honen eskaintza ekonomikoan**, baina adjudikatutako kontratua **fakturatzeko erreferentzia izango dira, administrazio-klausula berezien pleguaren 28. klausulan** xedatutakoarekin bat etorriz, eta **kontratu-aldaketak** izango dira eta aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzekin eta prozedurarekin bat etorriz izapidetuko dira.

Lanaren plan integraleko informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko enpresa lizitatzailerak, dokumentazio horrekin batera, egiazkotasunaren erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko aukera izango du. XIV. eranskineko eredia erabili beharko du horretarako, eta horren bidez egiaztatuko du emandako informazioa egiazkoa eta osoa dela eta errealitatea fideltasunez islatzen duela. Hala, lizitatzailerak bere gain hartuko ditu informazioa zehatza ez bada, edo faltsua bada sor litezkeen erantzukizunak.

5.2. Inpaktu ekonomikoaren txostena

Aurreko puntuan aipatutako aldizkako txostenen osagarri gisa, enpresa lizitatzailerak txosten espezifiko bat idatzi beharko du Gasteizko Aireportuaren inpaktu ekonomikoari buruz.

Inpaktu hori kuantifikatzeko helburuarekin, txostenean aireportuaren analisi ekonomikoa egin beharko da eta gutxienez hauek jaso beharko ditu:

- a) inpaktu ekonomiko zuzenaren, zeharkakoaren eta induzituaren estimazioak;
- b) adierazle ekonomiko gakoak enpleguari, errentari eta balio erantsiari dagokienez;
- c) erreferentzia bat kalkulu-metodologiari eta erabilitako estatistika-iturriari.

Aurreko guztiarekin posible izan beharko da ebaluazio objektiboa egitea eta ebaluazio hori konparagarria izatea Gasteizko Aireportuak ekonomian eta lurraldean sortzen duen ekarpenarekin.

VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietateak egiten dituen agiri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko ditu enpresa lizitatzailerak, eta kasu bietan bermatu beharko du emandako informazioaren kalitatea, argitasuna eta xehetasun-maila berdinak direla.

Inpaktu ekonomikoaren txostena eta ikuspegia **balio-judizioaren menpe** egongo dira eta gehieneko puntuazioa **9 puntukoa izango da**. Ondorio horietarako, honakoak baloratuko dira eta **gehienez ere 3 puntu eman ahalko zaizkio bakoitzari**:

- a) txostenerako proposatutako eskemaren egokitasuna eta koherentzia inpaktu ekonomikoaren analisiaren helburuekin lotuta;
- b) inpaktu ekonomikoa kalkulatzeko planteatutako metodologiaren sendotasuna eta argitasuna, aukeratutako adierazleen justifikazioa barne;
- c) proposatutako estatistika- eta ekonomia-iturrien egokitasuna eta garrantzia, eta analizatu den lurralde-eremuarekiko duten egokitzapena.

Puntuazioa proposamenaren garapen-mailaren, zorrotasun teknikoaren eta Gasteizko Aireportuak ekonomian eta lurraldean egiten duen ekarpena modu argi eta egituratuan adierazteko gaitasunaren arabera esleitu da.

Inpaktu ekonomikoaren txosteneko informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko enpresa lizitatzailerak, dokumentazio horrekin batera, egiazkotasunaren erantzukizunpeko



adierazpena aurkezteko aukera izango du. Horretarako, XV. eranskineko ereduak erabili beharko du, eta horren bidez egiaztatuko du emandako informazioa egiazkoa eta osoa dela, eta errealitatea fideltasunez islatzen duela. Hala, lizitatzailerak bere gain hartuko ditu informazioa zehatza ez bada edo faltsua bada sor litezkeen erantzukizunak.

6. Giza baliabideak

Kontuan hartuta **giza baliabideak** garrantzitsuak direla datuak jasotzeko lana zuzen egiteko eta aintzat hartuta inkesten kalitatea, fidagarritasuna eta jarraikortasuna hein handi batean giza baliabideak zuzen planifikatzearen eta horien prestasunaren araberrakoa direla, **kontratazioa egiteko ezinbestekoa izango da honako lantaldea kontratura esleitzea.**

Ondorio horietarako, enpresa adjudikaziodunak gutxienez lantalde hau esleitu beharko du kontratuan:

- **Bi inkestagile**, landa-lana egitearen ardura izango dutenak.
- **Zuzendari tekniko bat**, proiektuaren koordinazio orokorraren arduraduna izango dena eta VIA Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietatearekin solaskide-lanak egingo dituenak.

Halaber, eta **giza baliabideetan gerta daitezkeen gorabehera edo ezustekoetan zerbitzuak jarraitzen duela bermatzeko**, gehienez ere **10 puntu** emango dira (zehazki, **5 puntu pertsona osagarri bakoitzeko**) enpresa lizitatzailerak konpromisoa hartzen duenean langile batzuk eskuragarri izateko kontratua bete bitartean ordezkari posibleak egin ditzaten. Prestasun horrek ez du nahi esan langile horiek aurretik kontratatuko direnik, baizik eta enpresak konpromisoa hartzen duela **aurretik identifikatu diren eta prestatuta dauden langileak izateko** eta beharrezkoa izanez gero, azkar laneratzeko moduan izango direla.

Horretarako, eta **konpromiso hau betetzen eta egiaztatzen dela** errazteko, enpresa lizitatzailerak dagokion **adierazpena** aurkeztu beharko du, **XVI. eranskineko ereduari jarraituz.**

7. Esperientzia aireportuetan

Enpresa lizitatzailerak aurretiazko esperientzia badu **aireportuetan datuak jasotzen**, baloratu egingo da. Hala, gehienez ere **5 puntu** emango dira, horrelako azpiegituren jardura espezifikoak eta horri lotutako baldintzak kontuan hartuta.



Zehazki, puntuazioa honela esleituko da:

- **2 puntu** egiaztatutako esperientziarengatik datuak jasotzen **aireportuetan orokorrean**;
- **3 puntu osagarri** esperientzia hori **AENAREN sareko aireportuetan garatu bada**.

Informazio hori frogatzea errazteko, enpresa lizitatzailleak dagokion **erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu beharko du **XVII. eranskineko ereduari jarraikiz**.

8. Araudia betetzea

Kontratua betetzean **oso-osorik eta zorrotz errespetatu beharko da aplikatzekoa den araudia**. Hala, ondoren xehatuko diren **obligazioak betetzea ezinbestekoa izango da kontratazioa eta kontratu-betearazpena betetzeko**, eta une oro bermatuko dira hauek:

- Inkestatu direnen anonimotasuna.
- Jasotako informazioaren konfidentzialtasuna.
- Datu pertsonalak babesteko indarreko araudia betetzea, bereziki, 2016/679 EB Arautegia (DBAO) eta aplikatzekoa den Espainiako araudia.
- Ikerketa sozialeko eta merkatu-ikerketetako kode etikoak eta praktika onak betetzea.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak **nahitaez** txertatu beharko ditu kontratuan obligazio hauek:

- Berariaz aipatzea aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa.
- Egiaztatzea AENAREN aldeko erantzukizun zibileko aseguru sinatu dela eta indarrean dagoela, adierazitako baldintzetan.

Araudiak betetzen direla adierazteko deklarazioa eta kontratuan txertatu beharko diren baldintzak eta obligazioak betetzen direla dioen berariazko konpromisoa errazte aldera, **XVIII. eta XIX. eranskinetako ereduak jaso dira** hurrenez hurren, eta enpresa lizitatzailleak zuzen bete eta aurkeztu beharko ditu.

9. Balorazioaren laburpena

Balorazio irizpidea	Irizpide-mota	Gehieneko puntuazioa
Lanaren plan integrala	Balio-judizioa	16 puntu
Inpaktu ekonomikoaren txostena	Balio-judizioa	9 puntu
Giza baliabideak estaltzeko gaitasuna	Formula matematikoa	10 puntu
Esperientzia aireportuetan	Formula matematikoa	5 puntu
PLEGU TEKNIKOA GUZTIRA		40 puntu

Estimazioa

Portuko jarduna 2025- 2026



AIRE- UDA (APIRILA -URRIA)	IRITSIERA K	EGUNA	JATORRIA	HELMUG A	IRTEER A	IRITSIER A
		ASTELEHEN A	MALAGA	GASTEIZ	07:20	08:50
			MADRIL	GASTEIZ	09:05	10:00
			PALMA	GASTEIZ	14:00	15:30
			MALLORCAKOA	GASTEIZ	18:20	19:35
			BARTZELONA	GASTEIZ	20:50	22:10
			SEVILLA	GASTEIZ	21:35	22:55
			ALACANT	GASTEIZ	21:35	22:55
		ASTEARTEA	SEVILLA	GASTEIZ	10:30	11:50
			SEVILLA	GASTEIZ	10:30	11:50
			MILAN BERGAMO	GASTEIZ	15:55	17:55

			ALACANT	GASTEIZ	19:50	21:10
		ASTEAZKENA	MADRIL	GASTEIZ	10:05	11:00
			SEVILLA	GASTEIZ	11:55	13:15
			SEVILLA	GASTEIZ	12:00	13:20
			PALMA	GASTEIZ	12:35	14:05
			MALLORCAKOA			
			ALACANT	GASTEIZ	14:10	15:25
		OSTEGUNA	CHARLEROI	GASTEIZ	12:30	14:25
			ALACANT	GASTEIZ	19:10	20:25
			MILAN BERGAMO	GASTEIZ	20:00	22:00
		OSTIRALA	SEVILLA	GASTEIZ	08:20	09:40
			BARTZELONA	GASTEIZ	09:10	10:25
			MADRIL	GASTEIZ	09:30	10:25
			PALMA	GASTEIZ	16:00	17:30
			MALLORCAKOA			
			MALAGA	GASTEIZ	19:50	21:20
			ALACANT	GASTEIZ	20:15	21:35
		LARUNBATA	MILAN BERGAMO	GASTEIZ	13:45	15:45
			ALACANT	GASTEIZ	19:05	20:25
			ALACANT	GASTEIZ	19:05	20:25
		IGANDEA	SEVILLA	GASTEIZ	06:45	08:05
			CHARLEROI	GASTEIZ	06:40	08:35
			MADRIL	GASTEIZ	17:40	18:35
			BARTZELONA	GASTEIZ	18:20	19:35
			MALAGA	GASTEIZ	19:50	21:20
			ALACANT	GASTEIZ	20:35	21:55

AIRE-UDA (APIRILA-URRIA)	RTEERAK	EGUNA	JATORRI A	HELMUGA	IRTEER A	IRITSIER A
		ASTELEHEN A	GASTEIZ	MALAGA	09:25	10:55
			GASTEIZ	BARTZELONA	10:40	11:40
			GASTEIZ	MADRIL	10:50	11:55
			GASTEIZ	PALMA	16:05	17:25
			GASTEIZ	MALLORCAKOA		
			GASTEIZ	SEVILLA	22:35	23:55
			GASTEIZ	ALACANT	23:20	0:35

		ASTEARTEA	GASTEIZ	SEVILLA	12:15	13:35
			GASTEIZ	MILAN BERGAMO	18:20	20:10
			GASTEIZ	ALACANT	21:35	22:50
		ASTEAZKEN A	GASTEIZ	MADRIL	11:30	12:35
			GASTEIZ	SEVILLA	13:45	15:05
			GASTEIZ	SEVILLA	13:45	15:05
			GASTEIZ	PALMA		
				MALLORCAKOA	14:30	15:50
			GASTEIZ	ALACANT	16:40	17:55
			GASTEIZ	BARTZELONA	11:05	12:05
		OSTEGUNA	GASTEIZ	CHARLEROI	14:55	16:45
			GASTEIZ	ALACANT	21:40	22:55
			GASTEIZ	MILAN BERGAMO	22:25	0:15
		OSTIRALA	GASTEIZ	SEVILLA	10:05	11:25
			GASTEIZ	BARTZELONA	11:05	12:05
			GASTEIZ	MADRIL	11:20	12:25
			GASTEIZ	PALMA		
				MALLORCAKOA	18:05	19:25
			GASTEIZ	MALAGA	21:55	23:25
			GASTEIZ	ALACANT	22:10	23:25
		LARUNBATA	GASTEIZ	MILAN BERGAMO	16:10	18:00
			GASTEIZ	ALACANT	21:00	22:15
			GASTEIZ	ALACANT	21:00	22:15
		IGANDEA	GASTEIZ	SEVILLA	08:30	09:50
			GASTEIZ	CHARLEROI	09:00	10:50
			GASTEIZ	MADRIL	19:05	20:10
			GASTEIZ	BARTZELONA	20:15	21:15
			GASTEIZ	MALAGA	21:55	23:25
			GASTEIZ	ALACANT	22:30	23:45

AIRE-NEGUA (AZAROA- MARTXOA)	IRITSIERAK	EGUNA	JATORRIA	HELMUG A	IRTEER A	IRITSIER A
		ASTELEHEN A	MILAN BERGAMO	GASTEIZ	07:05	09:05
			MADRIL	GASTEIZ	08:55	09:50
			SEVILLA	GASTEIZ	14:40	16:05



			BARTZELONA	GASTEIZ	17:15	18:30
			ALACANT	GASTEIZ	19:35	20:55
		ASTEAZKEN A	MILAN BERGAMO	GASTEIZ	11:50	13:50
		OSTEGUNA	MADRIL	GASTEIZ	17:15	18:10
			BARTZELONA	GASTEIZ	16:15	17:30
		OSTIRALA	SEVILLA	GASTEIZ	06:35	08:00
			BRUSELA	GASTEIZ	07:20	09:15
			ALACANT	GASTEIZ	12:30	13:50
			BARTZELONA	GASTEIZ	16:50	18:05
			MADRIL	GASTEIZ	18:20	19:50
			MILAN BERGAMO	GASTEIZ	20:20	22:20
			MILAN BERGAMO	GASTEIZ	19:55	21:55
		LARUNBATA	ALACANT	GASTEIZ	19:30	20:50
		IGANDEA	CHARLEROI	GASTEIZ	11:50	13:45
			SEVILLA	GASTEIZ	14:20	15:45
			MADRIL	GASTEIZ	17:25	18:20
			BARTZELONA	GASTEIZ	18:20	19:35

AIRE-NEGUA (AZAROA- MARTXOA)	IRTEERAK	EGUNA	JATORRIA	HELMUGA	IRTEERA	IRITSIERA
		ASTELEHENA	GASTEIZ	MILAN BERGAMO	09:40	11:40
			GASTEIZ	MADRIL	10:35	11:40
			GASTEIZ	SEVILLA	16:40	18:05



			GASTEIZ	BARTZELONA	19:10	20:10
			GASTEIZ	ALACANT	21:30	22:50
		ASTEAZKENA	GASTEIZ	BERGAMO	14:25	16:25
		OSTEGUNA	GASTEIZ	MADRIL	17:05	18:10
			GASTEIZ	BARTZELONA	18:10	19:10
		OSTIRALA	GASTEIZ	SEVILLA	08:35	10:00
			GASTEIZ	ALACANT	14:25	15:45
			GASTEIZ	CHARLEROI	10:00	11:55
			GASTEIZ	BARTZELONA	18:45	19:45
			GASTEIZ	MADRIL	19:50	20:55
			GASTEIZ	MILAN BERGAMO	22:55	0:55
			GASTEIZ	MILAN BERGAMO	22:30	0:30
		LARUNBATA	GASTEIZ	ALACANT	21:25	22:45
		IGANDEA	GASTEIZ	CHARLEROI	14:15	16:10
			GASTEIZ	SEVILLA	16:20	17:45
			GASTEIZ	MADRIL	18:55	20:00
			GASTEIZ	BARTZELONA	20:15	21:15